



Azpeitiko Udala

Kultur**wz**
Azpeitiko Kultur Kooperatiba

AZPEITIKO UDALAREN ETA SANAGUSTIN KULTURGUNEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, AZPEITIAN KULTURA SUSTATZEKO

3.ERANSKINA

SAN AGUSTIN KULTURGUNEAREN, SOREASU ANTZOKIAREN ETA DINAMOA SORMEN GUNEAREN ERABILERA ARAUDIA.

SARRERA

Araudi honen helburua da Azpeitiko udalaren jabetzakoak diren San Agustin Kulturgunea, Soreasu Antzokia eta Dinamo Sormen gunea espazioen kudeaketaz arduratuko den pertsona juridikoari oinarritzko arauak ezartzea espazio horien erabilera kudeatzeko.

Espazio horien kudeaketaz arduratuko den entitatea pertsona juridikoa izatea beharrezkoa da eta gainera irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoa izatea ezinbestekoa izango da, Azpeitiko kultur mugimenduaren funtsa mantentzeko.

Kudeaketaren arduraduna izango den pertsona juridiko horrek Azpeitiko herriko kultur dinamika bildu beharko du bere baitan, hau da, Azpeitiko Kultur Mahaiaren eta Kultur Mahaitik at dauden kulturzale eta kultur entitateen izaera, edukia eta jarduteko modua jasoko ditu bere baitan. Kultur dinamika hori biltzeko ezinbestekoa izango da herriko kultur mugimendua ezagutzea eta barruan egotea egungo egoerari eusteko.

Kultur ekitaldietan oreka mantentzea beharrezkoa izango da eta horretarako kultur disziplina desberdinak, adin tarteak eta espektro guztiak kontuan hartuko dira.

Bestetik, azken urteetan Azpeitiko eragileek sormenaren esparruan ereindako lana eta dinamika ezagutzea beharrezkoa izango da. Horrela, orain arte hezurmamitutako transmisio lana ez galtzeko eta sormenari bultzada emateko.

Honen guztiaren helburua da Azpeitiko kultur mugimenduak azken urteetan bizi izan duen bilakaerari eta erreferentzialtasunari eustea. Hain zuzen ere, orain arte bezala kultur jarduera zabala eskaintzea eta herriko eragileek egiten duten lana babestea, bultzatzea eta eustea herritar guztien interes eta beharrak kontuan hartuz.

Hemendik aurrera kudeaketaz arduratzen den entitatea aipatzen denean, hitzarmenean erakunde laguntzaile gisa agertzen den Sanagustin Azpeitiko Kulturgunea Kooperatiba Elkarteari buruz ari garela ulertuko da.

1.- GUNEAREN DEFINIZIOA

1.1.-SANAGUSTIN KULTURGUNEA.



Azpeitiko Udala

Kultur**wz**
Azpeitiko Kultur Kooperatiba

Sanagustin Kulturgunea Enparantza nagusia 5, behean kokatuta dagoen kulturgunea da. Kulturgunearen jabetza Azpeitiko Udalarena da eta honako espazio hauetan dago banatuta:

- Eszenatoki nagusia.
- Arkupea.
- Erakusketa gunea.
- Ostalaritza gunea.
- Aldagela bat.
- Bulegoak (2 leku desberdinetan).
- Etab.

Espazioak kultur ekipamendu eta areto multifuntzionala izateaz gain ostalaritza gune bat du. Bertan adin eta espektro guztietako jendea biltzen da hainbat eratako kultur ekitaldi, jarduera edo ekimenez baliatu eta disfrutatzeko edo parte hartze zuzena izateko. Ostalaritza guneak taberna eta jatetxe zerbitzuak ditu.

1.2.-SOREASU ANTZOKIA.

Soreasu auzunean kokatuta dagoen areto edo antzokia da. Jabetza Azpeitiko udalarena da eta honako espazio hauetan dago banatuta:

- Eszenatoki handia.
- Butaken eremua (540).
- Zinema areto txikia.
- Atondoa edo hall-a.
- Txartel-leihatila.
- Aldagelak (azalera ezberdineko 4 gela).
- Zamalanetarako kaia.
- Komunak.
- Etab.

Antzokiak 540 ikus-entzuleentzako lekua du (denak eserita), txartel-leihatila gune bat, edukiera ezberdineko 4 aldagela eta hainbat eta hainbat sarrera (10 bat sarrera ate).

1.3.-DINAMOA SORMEN GUNEA.

Soreasu auzunean dago, Soreasu antzokiaren bueltan. Azpeitiko Udalak du bere jabetza eta eremuka banatzen da nahiz eta oraindik eremu bakarra egon guztiz ekipatuta. Dinamoa honako espazio hauetan dago banatuta:

- Sarrera. Harrera.
- Gela multifuntzionala (sukaldetxea, ekitaldi txikiak burutzeko espazioa, irakurketa-gunea...)
- Hitzaren eremua (2 gela + espazio anitza).
- Irudiaren eremua.
- Gorputzaren eremua.
- Biltegia.



- Sormena lantzeko gelak.
- Etab.

2.- ARDURA

1. puntuan aipatutako gunek kulturarekin lotutako udal-instalazioak dira eta beraien funtzionamendua udal kultura batzordearen ardurapekoa da.

3.- ERABILTZAILEAK

Erabiltzailetzat hartuko dira 1.puntuko definizioan aipatutako gunetako instalazio, zerbitzu eta programez baliatzen direnak. Erabiltzaileak, orokorrean, edozein talde zein norbanako izan daitezke, hau da, espazioak mota guztietako ekitaldietarako irekita izango dira baina kultur ekitaldi edo jarduerak izango dute lehentasuna .

Horrez gain, lehentasuna duten kultur ekitaldi eta jarduerekin lotuta, Azpeitiko herriko festetako eta egun berezietako ekitaldiek erabateko lehentasuna izango dute.

Guztiak, araudi hau ez ezik, zerbitzu eta prestazio bakoitzaren arau eta jarraibideak ere bete beharko dituzte, baldin eta horietan parte hartu edo horiek erabiltzen badituzte.

4.- ERABILERA ARAUDIA

Kudeaketaz arduratuko den entitateak I. eranskinean jasotako proiektuan agerian dauden jardun eta balioei eutsiko die hiru ekipamenduen erabilerari dagokionean. Horrez gain, ezinbestean bete beharko dira honako arau hauek:

4.1.) Aretoak erabiltzeko eskubide eta betebeharrak:

- Eskubideak:
 - Erabiltzaileek guneen jardueri buruzko egiazko eta behar bezala zehaztutako informazioa jasoko dute.
 - Erabiltzaileek gunetako arduradun, langile eta gainerako partaide guztien aldetik tratu adeitsua eta duina jasoko dute.
 - Baimena emateko helburua izan den erabilera-mota errespetatuko da.
 - Baimena eman den jarduera behar bezalako kalitate-baldintzaz garatuko da, material egokien bidez eta aurretiaz jasotako informazioaren arabera.
 - Araudi honetan eta gainerako arauetan eta organo eskudunek behar bezala hartutako erabakietan ezarritakoa beteko da.
- Betebeharrak:
 - Erabiltzaileek gunetako arduradun, langile eta gainerako partaideei une oro tratu adeitsu eta duina eman beharko diete eta gainerako erabiltzaileak bidezko errespetuz hartu beharko dira, elkarbizitza egokia izateko beharrezko jarrera eta errespetua bermatuko dira.
 - Jarduerak edo ekintzak egiteko baliatutako instalazio eta materialak zaindu beharko dira. Zentzu horretan, erabiltzaileek honakoak bete beharko dituzte:



- Instalazioak, zerbitzuak eta ekipamenduak egoki eta ezarritako erabilera errespetatuz erabili beharko dituzte. Arduragabekeriaz edo berariaz egindako kalteren bat antzemanaz gero, ekintzaren arduradunaren konturakoa izango da.
- Funtzionamendu, apurketa, akats edo araudi honetan ezarritakoaren arabeko arau-hausteren bat gertatuz gero, udalari jakinaraziko zaio.
- Debekatuta dago lokala edo altzariak berritu eta aldatzea Udalarekin adostu gabe.
- Erabiltzaile bakoitzak erabiliko dituen lokalak txukun uztea azpimarratzen da, baina garbiketa erakunde kudeatzailearen eta Udalaren artean osatuko da.
- Indarrean dagoen araudia onartu eta beteko da, eta oharpenak errespetatu eta aintzat hartuko dira.
- Araudi honetan eta gainerako arauetan eta organo eskudunek behar bezala hartutako erabakietan ezarritakoa beteko da.

4.1.a.) San Agustin Kulturgunea

San Agustin Kulturgunean bi ekintza mota nagusi bereizi behar dira eta biak mantentzea ezinbestekoa da. Alde batetik, kulturgunea den heinean, kultur ekintzak daude eta horiei dagokienez, ezinbestekoa izango da kultur ekitaldien oreka mantentzea herritar ororen interesak asetzeko eta babesteko. Kasu horretan ezinbestekoa da 3. puntuan aipatutako erabiltzaileen lehentasunak errespetatzea.

Bestetik, ostalaritza zerbitzua ezarria dago bertan, eta horren erabateko jardueraz arduratzea ere ezinbestekoa izango du 3 espazioen kudeaketaz arduratzen den entitateak.

4.1.b.) Soreasu Antzokia

Soreasu antzokian edozein motatako ekintzak egin ahalko dira, beti ere kultur erabiltzaileen lehentasunak mantenduz.

Bestetik, zine-emanaldiak mantendu beharko dira eta kasu honetan ere oreka zaindu beharko da emanaldien aniztasunaren aldetik. Zineari dagokionez Azpeitiko zine alorrean oinarritzea den Paradisu Zinema taldearekin harreman zuzena izatea ezinbestekoa izango da; eta bestetik, Udalak aurrera eramaten duen Tinko edo antzeko proiektuak aurrera eraman beharko dira.

4.1.c.) Dinamoa Sormen gunea

Edonor izan daiteke Dinamoa Sormenguneko erabiltzaile, beti ere sormenari lotutako banakako zein taldeko proiektu, formazio edo sormen prozesu kolektibo bat lantzen duen heinean. NORK: Instalazio horiek erabiltzeko eskubide lehentasuna, hurrenez hurren, honela finkatuko da:

- Herriko norbanakoek, taldeek zein elkarteek izango dute lehentasuna.
- Beste erabiltzaile guztiak.

4.2.) Eskaeren tramitazioa

KUDEAKETA: Kulturgunearen, Antzokiaren eta Sormen Gunearen erabileraz arduratzen den entitateak webgune bat martxan izan beharko du, eta bertan atal bat egongo da tramitazioa egikaritzeko. Horrela, eskaera idatziz aurkeztu beharko da entitateak jarritako baliabidearen bidez eta bertatik eskuratuko den eskaera ereduaren arabera.



BAIMENA: Baimena idatziz emango da, eskatzaileak bete beharreko baldintzak biltzen dituen inprimaki baten bidez, eta Kulturgunearen kudeaketaz arduratzen den entitateak izango du horretarako eskumena.

Aldi berean bi eskaera aurkezten badira eta biek aretoa egun eta ordu berean erabiltzeko baimena eskatzen badute, lehenengo atalean aipatzen den lehentasun-hurrenkerari jarraituko zaio. Era berean, urtearen hasieran kontuan izango dira kultur elkarteek urtero garai berean egiten dituzten ekitaldi finkoak, areto honen beharra dutenek dagozkien erreserbak egiteko.

4.3.) Urteroko ekitaldi finkoak

Erabiltzaileek urteroko ekitaldi finkoak aurreko urteko abenduaren 15a baino lehen finkatu eta jakinarazi beharko dizkiote guneen kudeaketaz arduratzen direnei. Ondorioz, arduradunen betebeharra izango da zehaztutako egun horietarako espazioak erabiltzaile horientzat erreserbatzea. Urteroko festek eta ekitaldi finkoek lehentasuna izango dute bestelako edozein ekitaldiren aurretik.

4.4.) Txartelen salmenta, sarrera kontrola eta instalazioen prestaketa lanak

Hiru gunetako txartelen salmenta, sarrera kontrola eta instalazioen prestaketa lanak guneen kudeaketaz arduratuko den entitatearen betebeharrak izango dira.

Txartelen salmentari dagokionez gutxieneko betebeharrak honako hauek izango dira:

- Internet bidezko salmenta ahalbidetzea.
- Sarrerak leihatilan eskuratzeko gutxieneko kopuru bat beti gordetzea.

Sarrera kontrola ere kudeaketaz arduratuko den entitatearen ardura izango da; horrenbestez, gune eta ikuskizun bakoitzak izan ditzakeen aforoak ezagutu eta kontrolatu beharko ditu.

4.5.) Udalarekin hitzarmena sinatuta duten kultur taldeen instalakuntzen erabilera.

Kultur talde hauen betebeharra izango da abenduaren 15a baino lehen hurrengo urteko ekitaldien berri ematea espazioen kudeaketaz arduratzen denari. Urteko ekitaldietatik kanpo beste ekitaldiren bat egin behar badute eskaera 15 egun lehenago egin beharko dute kudeaketaz arduratuko den entitateak ezarritako tramitazio prozeduraren bidez.

4.6.) Espazioa erabiltzeagatik sor daitezkeen gastuak

Kudeaketaz arduratzen den entitateak ezin izango ditu kobratu 1.puntuan aipatzen diren espazio horien erabileragatik, antolaketagatik eta emandako zerbitzu teknikoagatik sor daitezkeen gastuak, betiere erabiltzaileak honako zerrenda honetakoak badira:

- Azpeitiko Udala
- Azpeitiko kultur taldeak eta eragileak
- Irabazi asmorik gabeko Azpeitiko Elkarteak

Aipatutako erabiltzaile horien ekitaldietan, lan teknikotzat hartzen diren prestaketa lanak eta gainerako egitekoak, kudeaketaz arduratzen den entitateak gestionatuko ditu.



5.- ERABILERAREN HELBURUA

Araudi honetan deskribatutako guneetan erabilera bi modutan banatuko da:

5.1. OHIKO ERABILERA: ohiko erabileratzat hartuko da aldian-aldian eta modu antolatuan egindakoa, erabilera-lekua, egutegia eta ordutegia aldez aurretik zehaztuta. Ohiko erabileran lehentasuna izango duten ekintzak honako hurrenkera honetan sailkatzen dira:

- a.) Festei eta egun bereziei lotutako ekintzak
- b.) Udalarekin edo Kultur Mahaiarekin batera antolatutako ekintzak
- c.) Herriko elkarteek antolatutakoak
- d.) Bestelakoak

5.2. EZOHIKO ERABILERA: ezohiko erabileratzat hartuko da ohiz kanpo egiten dena, iraupen mugatua duena, eta hura egiteko, hasiera batean behintzat, beste erabilera eta hartzaile batzuentzat gordetako espazioak baliatzen dituen, erabilera-lekua, egutegia eta ordutegia aldez aurretik zehaztuta. Ezohiko erabileran lehentasuna izango duten ekintzak honako hurrenkera honetan sailkatzen dira:

- a.) Udalarekin edo Kultur Mahaiarekin antolatutako ekintzak
- b.) Herriko elkarteek antolatutakoak
- c.) Bestelakoak

6.- JARDUEREK ESKATZEN DITUZTEN BEHARRAK

Hiru guneetako jarduerak eskatzen dituzten behar guztiak guneen kudeaketaz arduratuko den entitatearen gain geratuko dira, hala nola:

- Behar teknikoak
- Laguntzaileak
- Segurtasuna
- Kontrola
- Garbiketa
-

7.- ORDUTEGIA

Gune bakoitzean bete beharreko gutxieneko ordutegia honako hau izango da:

7.1.) San Agustin Kulturgunea

Astelehenetik ostegunera: 09:00-23:00

Ostiraletik igandera: 10:00 – 03:00 (jardueraren arabera)

7.2.) Soreasu Antzokia

Ez dago egunero irekitzeko betebeharririk. Ekitaldiak eta zine emanaldiak daudenean beti irekiko da publikoarentzat

7.3.) Dinamoa Sormen Gunea

Ez du ordutegi finkorik eta bertako ohiko erabiltzaileek ateak txartel bidez irekitzeko aukera dute. Kudeaketaz arduratuko den entitateak arreta zerbitzua eskaini beharko du gutxienez honako ordutegian:

Astelehenetik ostiralera: 09:00-13:00 / 15:00-18:00

8.- ARAUDIA



Espazio publikoen erabilera aplikatu beharreko araudia Jendaurreko ikuskizunen eta Jolas jardueren 2015eko abenduaren 23ko 10/2015 legea izango da.

9.- GARBIKETA ETA MANTENU LANAK

Garbiketa eta mantenu lanen ardura espazio bakoitzean desberdina izango da:

10.1.- San Agustin Kulturgunea

- Garbiketa: Kudeaketaz arduratuko den entitatearen gain geratuko da.
- Mantenua: Kudeaketaz arduratuko den entitatearen gain geratuko da.

10.2.- Soreasu Antzokia

- Garbiketa: Azpeitiko Udalaren ardura izango da.
- Mantenua: Azpeitiko Udalaren ardura izango da.

10.3.- Dinamoia Sormen Gunea

- Garbiketa: Azpeitiko Udalaren ardura izango da.
- Mantenua: Kudeaketaz arduratuko den entitatearen gain geratuko da.

Hiru guneeetan egin beharreko inbertsioak Azpeitiko Udalaren ardura izango dira. Inbertsioetat hartuko dira ohiko erabilera egoki baten ondoriozko narriaduratik kanpo egin beharreko konponketa, lan edo gastuak.

Inbertsio horiek gauzatzeko, kudeaketaz arduratzen den entitateak jarraipen batzordeari nondik norakoak jakinarazteko betebeharra izango du aldian aldiko batzordeetan.

Horretaz gain, Udalak talde tekniko baten bidez eraikin horietan ikuskaritza jarraituak gauzatzeko ditu egon daitezkeen lan, inbertsio edo bestelakoak detektatzeko helburuarekin.

10.- ERABILERAREN ARAU OROKORRAK

Guneen erabilera-eskubideak hura arautu duten arauen onarpena dakar, eta hori haustek eskubide horren galera dakar berarekin.

Kudeaketaz arduratzen den entitateak beti eskatuko du jardueraren arduradunaren identifikazioa. Arduradun horrek honakoak hartuko ditu bere gain: ordutegiak, jarduera egin ondoren gunea antolatzea, garbiketa, jardueraren ondoriozko hondakinen bilketa, argien kontrola eta abar. Gunea baldintza egokietan utzi beharko da, gero beste elkarte batzuek erabili dezaten.

Guneetan egindako jarduera guztietan jarduerarekin bat datorren materiala erabili beharko da, eta ezingo dira lokaleko ondasun higigarriak eta higiezinak aldatu.

Debekatuta dago gai psikotropikoak hartzea eta erretzea. Soreasu Antokian eta Dinamoia Sormen Gunean edari alkoholduak sartzea eta saltzea ere debekatuta dago jarduerak hala eskatzen duenean salbu; horretarako, baimen zehatza beharko da.

Debekatuta dago elikagaiak sartzea, jarduerak hala eskatzen duenean salbu; horretarako, baimen zehatza beharko da.



Debekatuta dago lokaletara animaliak sartzea (gida-txakurrak salbu) jarduerak hala eskatzen duenean salbu; horretarako, baimen zehatza beharko da.

Espazioetan ezingo da tabakoa edo/eta edari alkoholodunak hartzera edota jokora, edota jarrera sexista, homo-lesbo-transfobo edo arrazistak izatera bultzatzen duen iragarkirik jarri. Era berean, debekatuta dago politika- edo erlijio-adierazpenak dituzten kartelak jartzea.

Araudi honetan deskribatutako guneetan gauzatuko den jardueren gaineko publizitaterik eginez gero, horretan beti jaso beharko da Azpeitiko Udalaren lankidetzatza.

11.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Dagokion espedienteak tramitatu ondoren, organu gorenak/jarraipen batzordeak/guneen arduradunak araudian jasotako oinarritzko arauak betetzen ez dituzten norbanako zein taldeei zehapenak ezarri ahalko dizkie.

Toki Araubidearen gaineko araudian ezarritakoa aplikatzeko ezar daitezkeen ekonomia-zehapenak ez ezik (500 euro, gehienez ere), honakoak ere berariazko zehapentzat hartuko dira:

■ Lokalen aldi baterako erabilera gabetzea.

Zehapen hori ohartarazpena egin ondoren ezarriko da, egindako arau-haustearen larritasunaren arabera. Hona hemen mailaketa:

- **Arau-hauste arina:** hiru hilabeteko erabilera gabetzea, gehienez ere.

Arau-hauste arintzat joko dira araudi honetan larri edo oso larritzat hartzen ez diren guztiak.

- **Arau-hauste larria:** hiru hilabete eta bi urte bitarteko erabilera gabetzea.

Arau-hauste larritzat joko dira honako hauek:

- x Lokalaren edo erantsitako bulegoen higiezin edo/eta higigarrietan kalteak edo hondatzeak eragitea.
- x Lokaletan edo erantsitako bulegoetan burutzen den edozein jardueratan pertsonak gutxietsi edo iraintzea.
- x Irabazi-asmoko, politika-edo erlijio- arloetako jarduketak egiteko araudian zehaztutakoaren araberrako debekua haustea.
- x Gutxienez hiru arau-hauste arin egitea.

■ Lokalen erabilera behin betiko gabetzea

Hori zehapenik larriena izango da, eta arau-hauste oso larrien aparteko kasuetan baino ez da aplikatuko. Arau-hauste oso larritzat joko da pertsonen askatasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren kontra egiten dena, bai eta bi alditan, gutxienez, arau-hauste larria egitea ere.

12.- ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Sustatutako jardueren arduradun diren taldeek ordaindutako aseguru zehatzak izan beharko dituzte.



Azpeitiko Udala



Jarduera-mota dela eta, aseguru zehatzen bat behar duen jarduerarik egitekotan, aseguru hori jarduera egingo duen taldeak kontratatu beharko du.